



228 ZB.KO DEKRETUA.

Oiartzungo haranean, bi mila eta hamarreko martxoaren hamaseian.

2010eko otsailaren 23an Udal honetako Alkate-Lehendakari jaunak emandako 139 zk.ko Dekretu bidez Hiri hondakinen Elizalde Herri Eskolako haurren jolas-parkeko lurreko zorua aldatzeko obraren kontratua MONTAJES GARRA, S.L. enpresari behin-behingo esleitzea erabaki zuen.

Sektore Publikoaren Kontratazioa arautzen duen 2007ko urriaren 30eko 30/2007 Legearen 135.4 eta 96.2. artikuluekin adostasunean, hamar egun balioduneko epea eman zitzaion behin betiko bermea ezar zezan eta Gizarte Segurantza eta zerga betebeharretan eguneratua dagoen ziurtagiriak aurkez zitzan.

Horiek aurkeztuta, Legearen 135.4. artikulua 3.parrafoaren eta 96.2. artikulua araberan, aurreko epea igaro eta gehienez bost egun baliodunetan behin-behineko esleipena behin betiko deklaratu da.

Gaiaren inguruan Administrazio Orokorreko Teknikariak egindako txostenean jasotakoa aintzat hartuz, espediente bideratzean aplikagarri diren legezko tramite guztiak bete direla kontuan izanik, Toki Jaurbideak ematen dizkidan ahalmenen egikaritzan, ZERA ERABAKITZEN DUT:

Emandako epean MONTAJES GARRA, S.L. enpresak bermea ezarri eta aurkeztu beharreko agiriak aurkeztu dituzenez, Elizalde Herri Eskolako haurren jolas-parkeko lurreko zorua aldatzeko obraren kontratua MONTAJES GARRA, S.L. enpresari behin betikoz esleitzea da, 36.763,42 €ko prezioarekin (BEZ barne) eta 4 asteko gauzatze-eparekin.

Bestalde, jarritako behin-behineko bermeak itzuliko zaizkie aurkeztutako lau enpresei: MONTAJES GARRA, S.L., GAMBOA LAN, S.L., CARPINTERIA DEL BIDASOA LAISTER, S.L. eta LURKOI.

Ordainketak Udal Aurrekontuko 1 0602 622 422 11 02 (A 3924/2009) diru atalaren kargura bideratuko da.

Aitor Etxeberria Txurio Alkate-Lehendakari Jn.ak agintzen eta sinatzen du, eta neuk idazkari naizenez, ziurtatzen.

